

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 3 PEZETA

BESTE BI OLERKARI GAZTE

Bi argi berri piztu dira gure literatura bizkortzera. Bada zerbait une nekegarrir aietan.

Igaz, Z. ARGIA'an (132'gn. zenbakia, irailaren 5'ekoak) eman nuen Jose Azurmendi eta Mikel Lasa beste bi olerkari gazteren zenbait berri, ta aruten, legezkoa zait beste biren zeatzen batzuek ematea; Xabier Lete eta Ibon Sarasola.

Gogo gutxikin artu nuen "Agora"-k eratuako olerki sariketaren juraduta. Ez baitira maiz arkitzen olerkari interesgarririk, ta gutxiago berriak. Aurtengo "Lizardi" sariketa ere ala-olakoak izan zen. Etzan berri onik, eta legoak lenean. Beriaz, esperantza gutxi nuen "Agora"ko sariketa ezer baliozko-rik arkituko nuenik. Nere uestez, ez bada sari onik poesia obetuko due nik. Baiña, uestea, ueste. Zorionez, ez da nere uestekoa gertatu.

Amar poema lan presentatu ziran: asko naiko onak eta batzuek on-onak. Batez ere, onetarik lau ezin obek. Aspaldiko urtetan gure artean ezagutu ez degun erakoak. Erderaz ere, nik neuk, ez dakit era berrian obegorik irakurri dedan. Lau poemak izenak auek ziren:

1) Pekatu zaharrak eta sinismen berria

2) Ahuntzaren gaueidiko estaliala

3) Bidez bidez

4) Mindura gaur.

Laurak uestekabeak izan ziren nerretaz. Gainera, bat edo kendu ezker, ez nekiri zentzurk izan zitezkean ere. Bi edo ira, ezagun zira poesiaren alorretarako berriak zirena. Laurak zehin baifio zehin obek. Eta ez zira erreza erabagia artea. Obeto aztertu eta bi alkarrizketa ondorean, Pekatu zaharrak eta sinismen barruari eman genion lehenengoko sari bakarra; Ahuntzaren gaueidiko estaliala bigarren mailan utzirik, baldin eragozpenen bat edo sartuko baitiz. Mindura gaur eta Bidez bidez artean ez giñan saia tu oboe zehin zitekean erabagitea.

Gero jakin nuen, lenen eta bigarren olerki Lete eta Sarasol gazteak zirela. Berekin, bi argi berri piztu dira gure literaturan. Gatz ta ke-mena etzate palta. Gauza asko

"Gure adiskidetasunik indartsuagoak aterako gera, gizon gastien aterpe zoriontsu izateko" (X. LETE)

"Poeta berriak luma berri bat hartu zuen gauza zaharrak era berrian esan zituen". (I. SARASOLA)

esal naitrik datoz, molde berrien bidetik. Ibon'ek ongi dion bezala:

"Poeta berriak luma berri bat hartu zuen gauza zaharrak era berrian esan zituen bidez berriak urratu zituen..."

Zer egiten duenaren eta zer esaten duenaren kontzientzia dute. Gure artean orain arte egin dan olerki maxikal eta epelarekin ez daude konforme. Batez ere Lete'k, bere gura, gizonaren prolemekin bat egin nai du ta erromantiku-keriak alde batera utzirik, "poesiaren poesia" salnatsen du "Poeta hoi'ek" izeneko batean, onela bukatzeko:

"Ai, poeta!
Gogorra izango da zuretzat azken julzioko eguna".

Lete'k bere poeman, ezker ta eskubi salnatsen ditu mundu ontako gaitzak. Golpera, anarkismo errebelatu batek eragintzen diola dirudi, baiña jarraituz, bere mintzara aldatzen du moral'stara ta gizonaregan espero du. Orregaitik dio:

"Zure bitzan bakardades sentitzen dezan adiskide hori, usunea usti, bakardadea bete, mugak zapaldu, begiak argia lilluratu, bihotzaren samn'ak alidendu nah'i dizkitzui".

Lete, era onetako anaitasunak bultzatzen du. Dion bezala:

"Zure presentzia eta nereba bat egingo dira, eragozpen guztiak bentaituz".

Asierako tremendista ura, itsaltzen da biotz samurtasunean, gizonagandikako esperantzak eraginda.

Bregan ikusten da Aresiren influentzia. Baiña, bere poeman, asl goitik eta behera, batasunezko bi-ribiltasun bat ematen jakin du. Ez dago alperrikako izirik, tarteka edo zehin poetak izaten dituan egkutu lilunak ere misterioz beterik izan-ko ditu, batna ez utsik. Orrez gal-dera, bere ikuntza, aberatsa ta bortitza da. Ojartzuko euskeraren giarra nabari zait. Bai euskera ederra, Ene uestean, Gipuzkoan pe-eririk gabea. Ta orrek laguntzen

"Ene barnean daramaten astoak ez du flauta kasualidadez jo".

Esango du, bear bada Irisarte ale-gigilleagandik urrut'i dagoala esateko.

Molde berrian artean era otek azaltzen ditu, izten esan usier'i be-gietarako ere sentidua eman nait-rik:

"Parkean, azkenengo horria herortzen dan bi tar tean..."

Jakiñekoa da iriz'i guztiak ez di-rala ados etorriko. Poesia konkretu ori zergaitik egiten duan?

"Iforik ez daki zer dan poesia.

Nik ez dakit zer bainan alor agortuak ez du fruturik emango nik aingura eta denpora eman-go ditut norik emengo du gehiago?"

Bai batak eta bai besteak ba du-te gauza ederrik aski. Bidez berriak irkitzen dizkitzue. Euskera bar-nean poesiaren mundua zabalago izatera daramate, frutu berriz ornit-uaz.

J. SAN MARTIN

FELIX ARANZABAL angiozar'ko itxua

Soñua, akordeola alegia, Vienn'a asmatu ei eben orain siglo ta er-di dala. Euskalerrira'ni noizbait sartu zait ta bai sustral sakonak hota be! Gure erri koskorretan so-nurik ez ba-dago ez dago liala be jai eltxerik.

Gizon elduendako eguerdiko baz-kaia ta berolaitak izaten dira jala-ren biotza, gataz jendearentzako, ostera, iluntzian asko dan mus-ika: Triki-trika, Yanka, Arin-arin, ta "Me ko dijo Perez" dana naha-suta, eizaferrak ta... ondoren-guak.

Garrantzi aundia dau, beraz, soñujotzailak olako jalsalditan, bere eskutan bait-dago erromeis-eren exitua. Oneri bonbo ta piatillo ipini eskero, a ez da soñujotzail-er soilla, ari "orkestina" esaten do-tzagu.

Erris soñu kontuan oso exijen-tia da ta bere aukerak zorrotz egi-ten ditu, ezin leixatzea katua er-bixaren truke sartu. Onela soñu-jotzaila batak mitologikuaq biur-tzen ditu, ta a entzulia bano gau-za obegorik ez ei dago munduan.

Nik onetako bat presentatu nai noizueke... Baitzueke gatzik jak-i-tea zehin dan Felix Aranzabal. Nork ez dau entzun, ordea, Angiozar'ko itxua? Urte luzetako izen somatua dauka berak. Beronekin artu-emana eukitzeko era izan deguon sekula etzaku ahaztuko bere umo-re ona ta edozeini gustua emote-ko daukan gogo xalao. Gizon fina ta danon adixkide. Oso buru ar-gikua... batebe zalantzarik gabe esango doten zelako urte ta or-duan izan zan olako edo alako ger-tara.

—Esaiguzu, mesedez, noiz eta zelan sai zinan soñua ikasten... —Lenengo etxian, Angiozar'en bertan, saxpi urte, zortzi, neukae-ria. Profesorerik gabe. Orduan etzan profesorerik, bai zera! Bes-te anai bisak, zaharrenak, sai zi-ren ikasten, ta ari entzudun... Musika gurguio ikasi neban. Itxu-tu nintzanean, Bilbo'n. Amabi ur-tekin joan nintzan Bilbo'ra ta ber-tan leitzen, eskribitzen ta soñua jotzen ikasi neban, baita piano ta bigulina be...

—Zer pentatsen jatzu, gaerko eguzek erretatsun geizago dago musika ikasteko? —Bai...! Gero ta erretatsun gai-zafo. Alare musika ikasteko asti-

rik larregi ez dago, batak eskola-rra joan biaz, beitiak profesionala-rra edo batkileria etzera... Gaer-ko egunian ez dago denborik orfeol baten ensalatzeko, esate oterako, presaka bizi garaz...

—Noiz sai zinan profesional mo-duan joten ta ze konkursuak iru-baal dozuz? —Ogei ta emergetagarren urtian. Lenengo konkursua Errenderin, Magdatenatan, 1945'garrenian. Ur-te artian bertan Ondarrabi'n be aurrena, ta Durango'n berdin. Beste okasiotan be Durango'n (1946) ta Portugalte'n (1948) le-nengo.

—Zelako diferentzia ikusten do-zu zuk oingo ta lengo erromelen artean? —Bizimodua aldatu egin da. Orain jalsaldia igarotzeko jendeak erri sandletera joatea naiago dau. Lehen ez egon orain bezala kan-pora justeko ametak. Orduan ez egon autobusian Donostia'ra ez-kursiño eltxerik edo Bilbo'ra par-tidu bat ikustera juterik... Or-duan auzuetako jaletarako goga bui !Orregaitik orduan erromelak aundiaquak izaten ziren. Besteala... ogei ta lau urteko beraktuak kan-pora joatia pentatsen be ez, bai zera !Bergara'ra joateko egun jakie-kuak; Pasku erdikoa ta karnibal martisenaz, akabo !Elgeta, Mon-drago, Elorrio'ra joateko egun jakie-kuak; Abadiño'ra 8 Blas eta hitxo !Bilbo ta Donostia ez existitza moduan; soldau joan biaz zana...

Nik ez dot esaten oingo ambien-tia oin 12 urteko bada txarregia danik. Orain jendeak euskal-kan-ta geizago daki... "Ixi-ixiig dago" ta orrek orainguak dra. Lehen jendak kanturik ez ekian. Ontan Arrate'ko radioak lan asko egin dau. Lastima izan dan...

—Erromelatan errekuerdorik onena? —Onati izango ote da, ba? (Bar-re egiten dau) andria antze bi-liau neban-da... —Ta bakateko, jatzun galdera. Zer pentatsen jatzuz "Ye-ye" ta olako alde orrek? —"Musika pasajera" dirala, ba-ñau alegria, orixe bai, argia da izan. Ambienteko musika... —Agur, Felix, eskerrik asko eta urrena arte nai dozuerako gertu. J. A. LETAMENDIA

—Esaiguzu, mesedez, noiz eta zelan sai zinan soñua ikasten... —Lenengo etxian, Angiozar'en bertan, saxpi urte, zortzi, neukae-ria. Profesorerik gabe. Orduan etzan profesorerik, bai zera! Bes-te anai bisak, zaharrenak, sai zi-ren ikasten, ta ari entzudun... Musika gurguio ikasi neban. Itxu-tu nintzanean, Bilbo'n. Amabi ur-tekin joan nintzan Bilbo'ra ta ber-tan leitzen, eskribitzen ta soñua jotzen ikasi neban, baita piano ta bigulina be...

—Zer pentatsen jatzu, gaerko eguzek erretatsun geizago dago musika ikasteko? —Bai...! Gero ta erretatsun gai-zafo. Alare musika ikasteko asti-

